

# Pobrezia energetikoa Gipuzkoan<sup>1</sup>

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa,  
Eguía-Careaga Fundazioa

<estudios@siis.net>

Ondorengo artikuluan laburbiltzen da pobrezia energetikoaren azterketan aitzindaria den Gipuzkoako txostena. EAEn buruturiko lehenengo azterketa honetan sarbidea egiten zaio gaiari, eta lehenengotik saiatzen da definizio osatu bat biltzen pobrezia energetikoa zer den ezagutzeko. Horren ostean, pobrezia energetikoa pairatzeko kausa gisara hartzen dira etxebizitzako diru-sarbide apalak, etxebizitzako eta hornikuntza-gailuetako efizientzia energetiko eskasa eta energiaren salneurriaren kostua eta izandako hazkuntza. Horrez gain, bertan aztergai hartzen dira osasuna, bizi-kalitate eta ongizate, eta ingurumenarekiko pobrezia energetikoaren gaiak duen eragina. Gipuzkoako egoera modu zehatuan aztertu ondoren, datu batzuek eskaintzen dituzte bertan, eta azken batean, gipuzkoarren etxebizitzaren %16,6ari modu desberdinean eragiten dio problematika horrek.

## GAKO-HITZAK:

Pobrezia energetikoa, eskasia, bizi-kalitatea, etxebizitza, arrisku-faktorea, Gipuzkoa, nazioarteko panorama.

En este artículo se resume el estudio pionero sobre la pobreza energética en Gipuzkoa. En este primer estudio llevado a cabo en la CAPV se realiza una introducción sobre el fenómeno, intentado concretar una definición aproximada. A continuación se exponen sus posibles causas subyacentes, como por ejemplo, los bajos ingresos, la escasa eficiencia energética o el propio coste de la energía. Además, se examinan sus consecuencias en la salud de las personas, la calidad de vida o el medioambiente. Por último, se analiza la situación en Gipuzkoa, donde este problema afecta, de distintas formas, al 16,6 % de las viviendas.

## PALABRAS CLAVE:

Pobreza energética, precariedad, calidad de vida, vivienda, factor de riesgo, Gipuzkoa, panorama internacional.

<sup>1</sup> Artikulu honetan laburbiltzen da SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak 2013an buruturiko Pobrezia energetikoa Gipuzkoan izeneko azterlana.

## 1. Pobrezia energetikoa: definizioa, kausak eta ondorioak

Ondorengo lerro hauetako artikuluan laburbiltzen da pobrezia energetikoaren azterketan aitzindaria den Gipuzkoako txostena (SIIS, 2013). Erresuma Batuan hirurogeiko hamarkadan sorturiko kontzeptua izan arren, eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran Brenda Boardman egilearen azterketa (1991) eskuragarri izan arren, ez zuen legeria-mailan oihartzunik izan 2000. urte arte. Egile horren azterlanean zehazten denez, pobrezia energetikoa pairatzen dute diru-sarbideen % 10 baino gehiago gastatzen duten etxebizitzetako familiak. EAEn buruturiko lehenengo azterketa honetan sarbidea egiten zaio gaiari, eta lehenengotik saiatzen da definizio osatu bat biltzen pobrezia energetikoa zer den ezagutzeko. Horren ostean, pobrezia energetikoa pairatzeko kausa gisara hartzen dira etxebizitzako diru-sarbide apalak, etxebizitzako eta hornikuntza-gailuetako efizientzia energetiko eskasa eta energiaren salneurriaren kostua eta izandako hazkuntza. Kausez gain, bertan aztergai hartzen dira osasuna, bizi-kalitate eta ongizate, eta ingurumenarekiko pobrezia energetikoaren gaiak duen eragina. Gipuzkoako egoera modu xehatuaz aztertu ondoren, datu batzuek eskaintzen dituzte bertan, eta azken batean, gipuzkoarren etxebizitzaren % 16,6ari modu desberdinean eragiten dio problematika horrek.

### 1.1. Zer da pobrezia energetikoa?

Pobrezia energetikoa definitzeko adibidetzat hartu daitezke etxebizitza batean etxeko premiak asetzeko zerbitzu energetiko nahikoak lortu ezin daitezkeen egoerak edota etxebizitzetako faktura energetikoa ordaintzeko diru-sarbideen gehiegizko zati bat bideratu beharra izaten duten egoera horiek. Nahiz eta jatorriko pobrezia energetikoaren kontzeptua etxebizitzetako tenperaturaren ezegokitasuna definitzeko erabili, gaur eguneko joera da kontuan hartzea, beroketa-sistemaz gain, bestelako premia energetiko horiek guztiak (argizatzea, ur beroa, hozketa-sistema, sukaldea, etxetresna elektrikoak, etab.). Aitzitik, definizio zabalago horrek ez du kontuan hartzen ibilgailuetarako erregairik, ez eta etxeko erabileratik kanpo dagoen bestelako kontsumo energetikorik.

Pobrezia energetikoaren terminoa (ingelesez, *fuel poverty* edo *energy poverty*) Erresuma Batuan sortu zen, hirurogeiko hamarkadan, eta garai hartako etxebizitzek, gaur egunekoak baino errenta apalago izanik, aurre egin behar izaten zieten kostu energetiko altuago bati; batetik, petrolio-krisialdiaren ondorioz, baina baita ere etxebizitzaren efizientzia energetikoaren maila eskasarengatik. Hirurogeita hamargarren hamarkadaren bukaera eta laurogeiko hamarkadaren bitarteko egile batzuek arreta jarri zioten gaiari, eta proposatu egin zituzten zenbait definizio. Hala ere, ez da asetzeko moduko definizioa lortzen Brenda Boardmanen eragin handieneko 1991. urteko lana argitaratu arte. Boardmanen esanean, pobrezia energetikoa definitu daiteke “[etxebizitza

bateko] eraginkortasun ezagatik tenperatura egokitzeko ezintasuna” nabarmenduz. Liburu horretan, Boardmanek proposatzen du neurketarako metodo bat, eta bertan aipamen hartzen du pobrezia energetikoaren egoeran daudela diru-sarbideen % 10 baino gehiago gastatzen duten etxebizitzetako familiak.

Nahiz eta 1991. urtean kaleratu Boardmanen liburu hori, pobrezia energetikoaren kontzeptuak ez zuen arauen aldetik ifrentzurik ezagutu 2000. urtean Warm Homes and Energy Conservation Act izenekoa ezarri arte. Arau horretan gobernu britainiarrari eskatzen zitzaion pobrezia energetikoa gutxiarazteko estrategia bat eta bere aplikaziorako helburu batzuek finkatzea. Horren ondorioz, 2001eko azaroan argitaratu zuten Pobrezia Energetikoaren aurkako I. Plangintza. Bertan jasotako definizio ofizialaren arabera, etxe batean pobrezia energetikoa dagoela ulertzen da estandar termiko egoki bat lortzeko diru-sarbideen % 10 baino gehiago energian gastatzen denean. Estandar termikoari dagokionez, definizio horretan kontuan hartu ziren Osasunaren Munduko Erakundearen gaiaren inguruko iradokizunetan nabarmen diren egongetarako 20°C eta beste getelarako 18°C. Horietaz gain, oinarriko aldaketa bat egin zuten. Horrela, garai arte erabilizko etxebizitzetako gastu erreala kontuan hartu ordez, erabiltzen da etxebizitzako tenperatura egokiaren mantentzea bermatzeko premiako gastu energetikoaren datu teoriko bat. Gaur egun, definizio ofiziala aipatutako hori izan arren, pobrezia energetikoaren kontzeptua berrikuste-prozesu batean dago Erresuma Batuan bi hamarkada baino gehiago igaro ostean.

Europar-mailan definizio komun baten hutsunea izan da, eta oraindik ere hala da, oraintsu Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen Irizpen batek nabarmendu dituen arazoetako bat da pobrezia energetikoa egoki ezagutu eta ebaluatzeko (Comité Económico y Social Europeo, 2011). Gainera, irizpen honetan proposatzen da izaera orokorreko definizio bat Europar Batasunaren esparruan, eta honakoa da pobrezia energetikoaren definizio hori: “tenperatura-egoera egoki batean etxebizitza mantentzeko zailtasun edo ezintasuna [...] eta eskuragarri ez izatea oinarriko bestelako zerbitzu energetiko batzuek, adibidez, argia, garraioa, Internet edo arazoizko prezio bateko gailu batzuetarako argindarra”.

### 1.2. Pobrezia energetikoaren kausak

Nahiz eta pobrezia energetikoa kausa anitzeko fenomeno izan –bestelako ikuspegi zabalago batetik pobrezia eta gizarte-bazterketa kausa anitzekoak diren bezalatsu–, nabarmena da pobrezia energetikoaren oinarriko kausa gisa hiru faktoreen inguruko kontsentsua –diru-sarbide apalak, etxebizitzaren efizientzia eskasa eta energiaren salneurri altuak–.

- Diru-sarbide apalak. Gaur egun, etxebizitzetan ur beroa edo beroketa-sistema bat izatea oinarriko premien baitan dagoela ulertzen da. Hori dela-eta, diru-sarbide apalak izateak edo faktura energe-

tikoak duen kostuari modu egoki batean ezin aurre egitea dira arazo honen oinarriko gaiak. Hori diote zenbait azterlanek, izan ere, pobrezia aurre egiten dieten talde zaurgarriak baitira gehienez, diru-sarbidetapalenak dituzten horiek (langabezia dauden pertsonak, gizarte-prestazioen jasotzaileak, lanaldi partzialak dituzten emakumeak, etab.).

- Etxebizitza eta hornikuntza-gailuen efizientzia energetiko eskasa. Energia-kontsumoari loturiko etxebizitza eta hornikuntza-gailuen efizientzia energetikoaren kalitate-maila da pobrezia energetikoaren bestelako osagai nagusietako bat. Etxebizitzaren sektoreari dagokionez, etxebizitzako oinarriko premia batzuek asetzeko (argindarra, gasa, etab.) ahalik eta energia gutxiena erabiltzea da efizientzia energetikoa. Zentzu honetan, badira osagai ugari, adibidez, eraikinen inguratzaile termikoan gertatzen diren gabeziak, errendimendu baxuko beroketa-sistemak edota efizientzia-maila gutxiko elektratresnak. Horiek guztiek kontsumo energetiko jasoegia ekarri dezakete, eta horren ondorioz etorriko diren faktura garestiak eta pobrezia energetikoa bizitzeko arriskuaren hazkuntza.
- Energiaren salneurria. Pobrezia energetikoaren baitan, eta energiaren salneurrien etengabeko hazkuntza ematen den testuinguru honetan, faktore horrek aipamen hartzen du etxebizitzek premiak asetzeko ordaindu behar izaten duten kostua. Lotura argia dago pobrezia energetikoa eta energia-salneurrian artean, izan ere, hazi egiten baitira energia-tarifak garestitzean, premia energetiko horiek asetzeko zailtasunak ere. Joandako urte hauetan energiaren salneurriak hazkuntza nabarmena izan du –Eurostat erakundearen estatistiken arabera (2012), 2008 eta 2012 urteen artean, Espainiako etxebizitzetako kontsumitzaileentzako argindarraren salneurria %57 hazi zen (zergak kontuan hartu gabe), eta gas naturala %16–, eta ulertu daiteke kontsumitzaile zaurgarrien kopuruak ere gora egin duela.

Nahiz eta pobrezia energetikoa, zentzu zabal batean, uler daitekeen konbinaturiko hiru faktoreen eraginarenean kausa gisara, arazo horrengan gehiago edo gutxiago eragiteko gaitasun nahikoa duten bestelako osagai batzuek hartu daitezke zientzia-literaturatik. Ondorengo hauek dira oinarriko faktore gehigarri gisara sarritan espezializatutako literaturak nabarmentzen dituen gaiak:

- Baldintza klimatikoak. Garbiki, klima izaten da pobrezia energetikoaren baldintzatzaile azterketa konparatuak egiten direnean herrialdeen artean edo herrialdeetako eskualde-mailan. Noski, berealdiko tenperaturak eragin gehien egiten dieten herrialdeetako premiazko kontsumo energetikoa altuagoa izango da, izan ere, klima epeleko herrialdeetan errazagoa izaten baita tenperatura egoki bat mantentzea.
- Habitata. Erresuma Batuan buruturiko zenbait azterlanek nabarmentzen dute landa-eremuetan eragiten duela gehien pobrezia energetikoak.

Etxebizitzaren ezaugarriak –gehienez, gaur egunekoak baino etxebizitza handi eta zaharagoak izaten dira, eta premia eta efizientzia-arazo gehiago izaten da etxebizitza horietan–, gas naturala lortzeko zailtasunak eta gehienez garestiago eta efizientzia gutxiagoko erregaiek erabiltzen dituzte, eta gune urbanoaren aldean, hazi egiten dira landa-eremuan pobrezia energetikoaren tasak.

- Informazioaren eskasia. Nahiz eta aurreztu eta efizientzia energetikoaren aldeko gizartearen kezka hazi, oraindik ere ikusgarritasun gutxiko arazoa da gaur egun pobrezia energetikoa kontsumitzaile askoren artean. Ez da soilik etxebizitzako efizientzia energetikoa hobetzeko dauden neurrien informazio garrantzitsuen hutsunea (etxebizitzak berritzeko laguntza publikoak, elektrotresna efizienteagoak erosteko diru-laguntzak, azturen aldaketa, etab.), baita ere horrek faktura energetikoan duen eragin zehatza ezezagun izatea.
- Horietaz gain, bestelako faktore batzuek azaltzen dira, eta pobrezia energetikoarekin erlazioa badu ere, gehienbat etxebizitzetako efizientzia energetikoa aipatzen dute, adibidez, etxebizitzako efizientzia energetikoaren baldintzak, erabilitako erregai-mota, etxebizitzaren tamaina eta bertan bizi den pertsona-kopurua, etxebizitza eraikitzean erabilitako isolatze-sistema, etab.

### 1.3. Zeintzuk dira pobrezia energetikoaren eraginak?

Pobrezia energetikoa eragin larriak dituen arazoa da osasuna, bizi-kalitatea edo ingurugiroa bezalako alorretan.

#### 1.3.1. Osasunarekiko eraginak

Pobrezia energetikoaren ondorio larrienetakoak dira osasun-arazoak. Egiatzatu egin denez, osasunari kalte egiten dio modu jarrai batean tenperatura desegokiak dituzten etxebizitzetako bizitzaileak, eta bereziki, egoera zaurgarrienean dauden pertsonen artean, adibidez, haur, nerabe, pertsona adindu edota gaixotasun kronikoak dituztenean. Zenbait gaixotasun izan edo beste batzuek okertzeko arrisku gehiago izateaz gain, zalantzarik gabe, hilkortasunaren hazkuntza da baldintza termiko desegokiaren ondorioz pobrezia energetikoa dituen ondorio larriena, dela hotz, dela bero gehiegiagatik. Hori dela-eta, ikusarazi da etxebizitza tenperatura baxuan mantentzearen eta neguan gertatzen den hilkortasunaren %10 inguruko hazkuntzaren arteko erlazioa pobrezia energetikoaren ondorioz gertatzen dela (Hills, 2003). Zehazki, Espainiaren kasuan, oraintsu buruturiko azterlan batek (Tirado, 2012) kalkulatu du pobrezia energetikoa dela urte oro gertatzen diren 2.300 heriotza goiztiarren arduradun. Gipuzkoako azterlanen erabilitako metodologia<sup>2</sup> bera erabiliz gero,

<sup>2</sup> Erresuma Batuan estatistika ofizialetan erabiltzen den metodologia da. Heriotza goiztiarren kopurua ezagutzeko erabiltzen da

emaitzek azaltzen dute % 21,6koa izango litzakeela lurraldeko batz besteko neguan gehigarria den hilkortasun-tasa 1998-2010 aroan, eta zifra hori pixka bat altuagoa da Espainiako aro bereko batz bestekoarekin alderatuz gero (% 20,5). Datu horietatik abiatzen, eta onartuz pobrezia energetikoari loturiko neguko hilkortasunaren gehiengoa % 10ekoa dela, kalkuluek diote arazo horren ondorioz gure lurraldean urtero 40 heriotza goiztiar gertatzen direla.

### 1.3.2. Bizi-kalitate eta ongizatearenganako eraginak

Etxebizitzetako ongizate eta bizi-kaliterako oso kaltegarria da pobrezia energetikoa. Eskuarki, pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetan, arrisku gehiago izaten da tenperatura desegoki, hezetasun, lizun, zarata edo beste arazo batzuek izateko. Halaber, eta etxebizitzako energia-kontsumoaren efizientzia ezaren ondorioz, arrisku gehiago izaten da etxebizitza horietan aurre egiteko diru-sarbideen araberako faktura energetiko altu baten ordainketari, eta horren ondorioz, gutxitu egin daiteke beste ondasun eta oinarrizko zerbitzuak erabiltzeko egindako gastua (jakiak, oinetakoak, garraioa, etab.), ez ordaintzeagatik arazoak, zorrak ugaritu eta batzuetan horniduraren eteteak gertatzea (1. grafikoa). Ondorio horiek guztiek sorrarazi dezakete pobrezia eta gizarte-bazterketako egoera horiek areago okertzea pobrezia energetikoa bizi duten etxebizitzetan.

### 1.3.4. Ingurumenarekiko eraginak

Etxebizitza-arloko energia-kontsumoa da atmosferaren berotze eta beste kutsatzaile batzuen eragin zuzena duten negutegi-gasen isuri-iturri nagusienetako bat (negutegi-efektua). Espainiar Estatuan, adibidez, kalkulatzen da etxebizitza-sektoreak azken enjerearen % 17 kontsumitzen duela, eta horrek

negutegi-efektua sortzen duten gas-isurkinen % 33ko portzentajearen ardura dutela (WWF/Adena, 2012). Nahiz eta ezin baiezta ingurumenaren kutsadura-maila pobrezia energetikoaren zuzeneko ondorioa denik, egia da etxebizitzetan efizientzia energetiko apalak energia-kontsumoa haztarazten duela, eta horren ondorioz hazten dira atmosferara isuritako gas-kutsatzaileak. Etxebizitzetan sektorearen baitan, gehienbat, berokuntza-sistema eta ur-berokuntza galdaren errekuntzak sortzen ditu isurkin horiek. Orokorrean, galdara-mota, erregaiaren kontsumoa, erregai-mota, galdararen errekuntza-teknologia eta efizientzia energetikoen araberakoak izaten dira isurkin horiek.


### 1.3.5. Eraikuntzen degradazioan dituen eraginak

Kasu askotan, pobrezia energetikoaren egoeran bizi diren pertsonen etxebizitzek kalitate-maila eskasagoa izaten dute, eta arriskua hazi egiten da etxean betirako hezetasun-arazoak gertatzeko, eta horrek eragin nabarmena izaten du degradazio-prozesu bizkor bat gertatu eta horma, ate edo leihoak kaskartzeko. Hori dela-eta, aipatzen da pobrezia energetikoaren alderdi bat dela, baldintza ezkorretara ohituriko etxebizitzetan, eraikuntzaren degradazio-prozesua gertatzea, eta horrekin bat izaten den pobrezia energetikoa areagotzea.

### 1.4. Nola neurtzen da pobrezia energetikoa?

Ez da batere erraza pobrezia energetikoaren fenomeno kuantifikatzea. Izan ere, eta alor honetako ikerkuntzak hiru hamarkada beteak dituen arren, oraindik ere ez baitago erabat fidagarria den egokitasun-maila bat lortzeko zerbitzu energetiko nahikoa izaterik ez duten etxebizitza-kopurua neurtzeko sistemarik. Horren adierazle da ez dagoela pobrezia

1. grafikoa. Arazo ekonomikoaren ondorioz, joandako hamabi hilabeteetan gastu batzuek murriztu behar izan dituzten etxebizitzak. Gipuzkoa, 2012



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta (2012).

neguko hilkortasun-tasa gehigarria, eta konparatzen da abendutik martxo bitartean zendutako kopurua, data horien aurreko eta ondorengo lauhilabeteko areekin.

energetikoa neurtzeko metodologia bakarra, eta horri arreta jartzen dioten ikuspegiak, gehiago edo gutxiagoan, muga teoriko eta metodologiko zehatzak dituztela.

Hiru dira pobrezia energetikoa neurtzeko eskura dauden ikuspegiak:

- Temperaturaren neurtzea oinarri hartzen duena.
- Etxebizitzako gastua oinarri hartzen duena.
- Azalpen eta hautemateetan oinarriturikoa.

#### **1.4.1. Temperaturaren neurtzea oinarri hartzen duen ikuspegia**

Ikuspegi honek neurtzen du etxebizitzetako batzuek besteko temperatura zehaztu ahal izateko, ezarritako atalase termiko baten arabera, etxebizitzan pobrezia energetikoa bizi ote duten. Nahiz eta ikuspegi errazaren itxura izan, berehala frogatu zen arazo batzuek bazituela izaera teoriko eta metodologikoa. Ikuspegi hau eraginkor bihurtzeko lehenengoa oztopo gertatu zen zientzia- eta teknika-mailan osasunarentzako temperatura egokiena zein ote zen adosteko ezintasuna. Adibidez, Osasunaren Munduko Erakundeak erreferentziatzako temperatura gisara 21°C-ko temperatura ezartzen du bereziki zaurgarri diren pertsona adindu eta ezgaitasunen bat duten pertsonentzat, eta mediku-literaturak gutxiengo 16°C-ko temperatura hartzen du aipamen pertsona osasuntsuentzat, baina 18°C gomendatzen ditu eguneko jardunetarako eta 21°C pertsona zaurgarrientzako.

#### **1.4.2. Etxebizitzako gastua oinarri hartzen duen ikuspegia**

Laurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran Clinch eta Healy egileek (1999) Irlandako pobrezia energetikoaren inguruan eginiko azterlanaren oinarri metodologikoak hartzen ditu ikuspegi honek. Bertan nabarmendu zuten, errenta-maila apala zuten etxeetan, diru-sarbideen proportzioan gastu handiagoa egiten zuten errenta altuko etxeekin alderatuta. Aurkikuntza horren ondorioz, pobrezia energetikoaren atalase bat ezarri daiteke, eta horren arabera kontuan hartuko da gastu energetikoak eragiten ote dion, diru-sarbidearen arabera proportzio zehatz batean. Geroago, atalase hori ezarri zen diru-sarbideen % 10ean, Brenda Boardman egileak aurkeztu eta Erresuma Batuan buruturiko azterlan batean (1991) oinarri harturik.

#### **1.4.3. Azalpen eta hautemateetan oinarrituriko ikuspegia**

Ikuspegi honek pobrezia energetikoa neurtzen du etxebizitzetan jasotako hautemate eta adierazpenak kontuan hartuz. Ikuspegi honek Peter Townsend edo David Gordon egileen pobrezia eta gizarte-bazterketaren ekarpenak biltzen ditu oro har, eta

pobrezia energetikoa lotzen du sozialki premiakotzat jotzen diren etxebizitzako ondasun eta zerbitzu batzuen gabezia-fenomeno batekin. Aurrena, John D. Healy eta Peter Clinch irlandar ikerlariek proposatu zuten ikuspegi hori 2002an argitaraturako *Fuel Poverty in Europe: A Cross-country Analysis Using a New Composite Measure* azterlanean. Bertan erabilitako metodologiaren bidez, alde batetik, asmoa zuten etxebizitzako gastuan oinarri harturiko ikuspegi gaintzea. Izan ere, egileen esanean, ikuspegi mugatua eta zientzia-oinarri gutxiago baitzen; eta, bestetik, asmoa zuten Europar Batasuneko herrialdeen konparazioa erraztea, urteetan estatistika-segida eginiko EBko Etxebizitza Paneletik hartutako datuak erabiliaz.

#### **1.5. Pobrezia energetikoa: nori eragiten dio gehien?**

Pobrezia energetikoaren inguruan eginiko azterlan kopuru hori berrikusi ostean, nabarmentzen da zaurgarritasun-faktore batzuek daudela etxebizitza batzuetan pobrezia energetikoa pairatzeko arriskua haztarazteko. Nabarmendutako oinarritzako faktore batzuen artean –horietako batzuek hertsiki daude erlazioaturik–, ondorengo hauek aipatu daitezke:

- Diru-sarbide apalak: faktore erabakigarria da pobrezia energetikoa gertatzeko, eta hori diote azterlan batzuek, izan ere, bereziki nabarmena omen da eragina baliabide urriak dituzten etxebizitzetan, langabezian dauden pertsonen artean, eta laguntza edo prestazioak jasotzen dituztenen artean.
- Tamaina: pertsona bakarreko etxebizitzetan, eta gehienez pertsona adinduak bizi diren etxe horietan, nabarmendu da pobrezia energetikoa pairatzeko arrisku handiagoa dutela, eta horren erantzule izan daiteke diru-sarbide baxuak izatea eta konparazioan etxebizitzako temperatura egokitzeko energia-maila altuagoa erabili beharrezko arteko konbinazioa.
- Etxebizitzen osaera: frogatu denez, pobrezia energetikoaren eragina nabarmenki altuagoa izaten da familia gurasobakarren artean, bereziki 16 urte azpiko seme-alabak eta pertsona erretiratuak bizi diren kasuetan, eta baita ere banandu, dibortziatu edota alargundu diren pertsonen artean.
- Etxebizitzen antzintasuna: orokorrean, pobrezia energetikoak askoz ere eragin nabarmenagoa du hirurogeita hamarreko hamarkadaren aurretik eraikitako eraikuntza edo etxebizitzetan.
- Etxebizitza edukitzearen erregimena: frogatu denez, pobrezia energetikoaren eragina hedatuagoa dago, nagusi diren etxebizitzetan, errentan bizi diren etxebizitza horietan.
- Habitata: gune urbanoen aldean, landa-eremu batean bizitzeak haztarazten du pobrezia energetikoa pairatzeko arriskua.

## 2. Pobrezia energetikoa Gipuzkoan

### 2.1. Gipuzkoako pobrezia energetikoaren arazoa testuinguruan ulertzeko gako batzuek

Atal honetan deskribatzen dira, Gipuzkoako pobrezia energetikoaren emaitzen azterketa burutu aurretik, gure lurraldean pobrezia energetikoa duen eragina neurtzeko kontuan hartu beharreko faktore nagusiak. Aurreko atalean azalduko pobrezia energetikoaren oinarriko hiru kausak hartzen ditu egituratzeko atal honek, eta bere xedea da fenomeno hori zenbait espezifikotasun dituen Gipuzkoako lurraldearen testuinguruan zehaztea.

#### 2.1.1. *Ekonomia-krisialdiko testuingurua: langabezia eta pobrezia hazten dira, eta beheratu egin da diru-sarbideen maila*

- Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestaren arabera, 2012. urtean pobrezia-arriskua edo pobrezia erlatiboa pairatzen zuen Gipuzkoako biztanleen %16,8k (diru-sarbide baliokideen medianaren %6oko adierazlea erabiliz), beraz, 120.000 pertsoneri eragiten die fenomeno honek. Berez, ongizate eskasa edota diru-sarbide apalen adierazletzat ulertu daiteke erreferentzia gisara erabilitako adierazle hori; baina hori erabili ordez, kontuan hartzen bada pobrezia larriaren adierazlea, hau da, errenta-maila apalagoa bada diru-sarbide medianaren %40aren azpitik, horren emaitzak azalduko luke biztanle gipuzkoarren %4,3 maila horren azpitik dagoela.
- Nahiz eta urte berdinerako Estatu-mailako tasak baino askoz ere apalagoak izan –pobrezia erlatiboaren tasa da %21,1 eta pobrezia larria %10,1 (Instituto Nacional de Estadística, 2012)–, eta baita ere apalagoak dira alderatuz gero EB-27 herrialde-kideen eremuaren aldean –hurrenez hurren, %16,9 eta %5,7 (Eurostat, 2011)–. Begien bistan da gipuzkoar familien diru-sarbideak oso modu garrantzitsuen beheratu direla, gehienbat, langabezia-tasaren hazkuntza –2008 eta 2012 urteen artean pasa da %3,3 izatetik %9 izatera (Eustat, 2012a)– eta lansarietako erosteko ahalmena gutxitzearen ondorioz.
- Egiaz, ikuspegi ebolutibo batetik, Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen 2012ko Inkestak nabarmentzen duenez, 1996. urtetik aurrekaririk izan gabeko moduan, ekonomia-krisiak etxebizitzetako zailtasunak haztarazi ditu ohiko betebeharrak eta gastuei aurre egiteko, eta horregatik gertatu da baliabideei loturiko pobrezia-arrisku eta prekaritatearen hazkuntza nabarmen hori. Inkesta horren arabera, ekonomia-krisia sortu zenetik pobrezia erreala hazi da 2008an %2,5 izatetik, 2012ko %3,8ko portzentajea heltzera.
- Gero eta gehiago okertzen ari diren etxebizitzetako ekonomia-egoerak, eta ondorioz gertatzen den gastua egiteko gaitasunaren gutxitzeaz gain, nabarmentzeko gertakaria izan da gero eta gehiago hazten ari dela etxebizitza gipuzkoarren

faktura energetikoa bestelako ondasun edota zerbitzuen gastu orokorren baitan. Hori bera dio Eustatek buruturiko Familia Gastuen Inkestak ere, eta sei urteko aro labur batean (2006 eta 2012 urteen artean), euskal etxebizitzetan hazi egin da argindarra, gasa eta beste erregai batzuen-gatik egin beharreko batz besteko gastua, eta ondasun eta azken kontsumoko zerbitzuen gastu orokorren %2,3 izatetik, %3,5 izatera pasa da.

#### 2.1.2. *Efizientzia energetikoaren aldeko urrats garrantzitsuak egin arren, oraindik ere bada aurrerabidea egiterik*

- Batz bestean 40,3 urte ditu batz besteko Gipuzkoako familia baten etxebizitza batek, eta bestelako euskal etxebizitzetan batz bestekoa (39,7 urte) baino pixka bat zaharragoa da Gipuzkoako etxebizitza-parkea (Eustat, 2011a). Gaur egungo Gipuzkoako familia-etxebizitza horietatik guztietatik %59 dira 1979. urtearen aurrekoak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentua, 2012), hau da, Eraikuntzetarako Oinarriko Arautegia onartu aurrekoa, eta oso maila apaleko eskakizunak egiten ditu horrek estalki, fatxada, ate eta leihoetako isolatze termikoa lortzeko. Energiaren Euskal Erakundearen arabera, kalkulatu da erreformarik egin gabeko 1979. urtearen aurretik eraikitako eraikin baten beroketa-sistemaren eskaria 2,8 biderretan hazten dela 2007tik aurrera eraikitako baten aldean. Izan ere, indarrean jarri zen urte horretan Eraikuntzarako Kode Teknikoa, hau da, inguratzaile termikoaren konfiguratzeari dagokionez, aurrekoa baino araudi askoz ere zorrotzagoa.
- Nahiz eta etxebizitza batzuetan baldintzak hobetzeko lanak egin diren, oraindik ere arlo zabala dago etxebizitzak berritzen lan egiteko. Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, Gipuzkoako etxebizitzetatik %10,6k, hau da, 29.000 etxebizitza inguruk, premia dute berritze-lan batzuek egiteko (Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, 2012). Familiek aitorturiko berritze-lanen premien artean ageri dira ate eta leihoen aldaketak (%28) eta fatxada-berritzeak (%22)<sup>3</sup>.
- Gaur egun, eta Energiaren Euskal Erakundearen kalkuluen arabera, 2007. urtea baino lehenago eraikitako etxebizitzetako egituretan erreformak eginez gero, berokuntza-sistemaren kontsumoa %40 gutxitzerik omen dago. Eraikuntza-data desberdinetan eginiko eraikuntzen azterlanen arabera, nabarmentzen dute etxebizitzetako estalki, leiho eta ateak direla aurrezki energetikorako ahalmen gehien duten egiturazko osagaiak.
- Bestalde, Gipuzkoako etxebizitza-parkeak zenbait osagaietan hobierantzko bidea egin du joandako 20 urteotan. 1991. urtean, adibidez, etxebizitza horietatik guztietatik soilik %28,9k zuen

<sup>3</sup> Adierazitako premien araberrako portzentajeak birgaitze-premia duten etxebizitzetan batura dira, ez dira bereziki Gipuzkoakoak.

berokuntza-sistema bat, eta 1996. urtean, hodi bidez jasotako gas-instalazioa zuen etxebizitzetako % 37,3k (Eustat, 2011a). Gaur egun, gehien-goak ditu bi osagai horiek: hodi bidez jasotako gasa du etxebizitzeko % 61,1ak eta Gipuzkoako etxebizitzeko gehiengoak (% 91) badu berokuntza-sistemaren bat, zentrala, banakoa edota puntualea (Energiaren Euskal Erakundea, 2013).

- Berokuntza-sistemari dagokionez, Gipuzkoan gehienbat erabiltzen da kanalizatutako gasa (% 57,5), eta horren ondoren gehien erabiltzen dira berokuntza-sistema elektrikoak (% 31,9) –berogailuak eta metagailuak, batik bat– eta gasolioa (% 7,1). Berokuntza-sistema termostato baten bidez erregulatzen denean (kasuen % 73,3), Gipuzkoako etxebizitzek, batz bestean, hautatzen dute 20<sup>o</sup>C-ko tenperatura bat (oro har, ulertzen da etxebizitzetako baterako tenperatura egokia dela 20<sup>o</sup>C eta 21<sup>o</sup>C artekoa). Gipuzkoako etxebizitzetako termostatoa 21<sup>o</sup>C-tik gora jartzen du (Eustat, 2008), soilik, etxebizitzetako horietatik guztietatik % 11ak (Energiaren Euskal Erakundea, 2007). Berokuntza-sistema bat duten etxebizitzetako gipuzkoarretik % 77k itzali egiten du sistema hori gauean, eta bere erabilera mugatzen da gehienbat urteko 3 eta 6 hilabeteren artean (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentua, 2012). Energiaren Euskal Erakundearen kalkuluen arabera, berokuntza-sistemak hartzen du etxebizitzetako energia-kontsumoaren % 40.
- Leihoen isolatze termikoari dagokionez, Eustatek 2008an buruturiko Ingurumena-Familiak Inkestaren arabera, sareta edo kontraleihoak dituzte Gipuzkoako etxebizitzetako nagusien % 95,9k, beira bikoitzeko leihoak ditu % 69k eta zubi termikoaren haustura-sistema % 36,6k. Horretaz gain, kontsumo apaleko bonbillak dituzte Gipuzkoako etxebizitzetako % 66an (Eustat, 2008). Proporzio horrek hazkuntza nabaria izan du joandako urteotan, eta Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak ageri duen moduan, 2012. urtean, Gipuzkoako etxebizitzetako hiru laurdenetan erabiltzen dituzte (% 77,8) horrelako bonbilla edo lanparak, eta, horrela, % 80 baino aurretik da (Energiaren Euskal Erakundea, 2007), bonbilla inkandezente eta halogenoen aldean. Horretaz gain, eta iturri beraren arabera, gipuzkoar etxebizitzetako herenak baino gehiagok (% 35,7) aldiaren batean aldatu ditu leihoak aurretiko asmoz.

### 2.1.3. *Extebizitzetako kontsumoa mantendu arren, familia-gastua haztarazi egiten du energia-prezioen gorakadak*

- EAEko eskari energetikoaren % 8 eta fakturaren % 15 da etxebizitzetako sektoreak egiten duen kontsumo energetikoa, gutxi gorabehera 856 milioi euro (Energiaren Euskal Erakundea, 2013), hau da, 2011. urteko BPGaren % 1,3 inguru (Eustat, 2011b).
- Dudarik gabe, gure bizimodurako energiaren premia dugu. Gipuzkoako etxebizitzetako bizi

diren pertsonen % 100ak erabiltzen duten energia elektrikoa, eta, gainera, kanalizaturiko gasa du % 62,5ak. Askoz ere baxuagoa da petrolioaren jatorria duten likidoturiko gasen erabilera, adibidez, butanoa edo propanoa (% 17,7), gasolioaren tankerako erregai likido (% 7,2) eta egurraren erabilera (% 4,7) [Eustat, 2008]. Eremu murrizta dute (hazten ari den arren), oraindik ere, Gipuzkoako etxebizitzetako sektoreko energia berriztagarriek. Izan ere, soilik gipuzkoarren etxebizitzetako % 1,8k baitu horrelako energia berriztagarrien instalazioen bat (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentua, 2008).

- Efizientzia energetikoaren bidean hobetu arren, bizimoduko ohitura eta kontsumoaren eboluzioak haztarazi du etxebizitzetako kontsumo energetikoa altuagoa izatea. Horretaz gain, kontsumo hazteko faktoreak dira gero eta pertsona gutxiagoko familiak bizitzeko etxebizitzetako eta erosotasun gehiago lortzeko energia-erabilera hazkuntza.
- Gipuzkoako etxebizitzetako gehienbat daukate oinarritzko elektrotresna handi hauek: hozkailua (% 100), garbigailua (% 99,8), sukaldea (% 99,7), labea (% 97,5) edo ke-xurgagailua (% 92,5). Ontzi-garbigailuen erabilera ez da horren ohikoa, baina gipuzkoar etxebizitzetako % 51k du horrelako elektrotresna bat (Eustat, 2008). Halaber, Gipuzkoako etxebizitzetako, soilik, aire girotua du % 3,9k (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentua, 2012). Bestalde, etxebizitzetako % 80k dio bestelako elektrotresna ‘txikiak’ dituela, adibidez, arroparako lisagailua (% 96,7), mikrouhin-labea (% 88,9), ile-lehorgailua (% 87,8), irabiagailu elektrikoa (% 87,5) edo xurgagailua (% 83,7). Elektrotresna horietaz gain, kontuan hartu behar dira lirategi arruntak diren telebista (% 99,8), DVD (% 69,2), ordenagailua (% 62,1) edo musika-katea (% 60) [Eustat, 2008].
- Joandako urteotan nabarmen haztarazi da gure gizartearen aurrezki energetikoaren kontzientzia, eta horretaz gain, kontuan hartu behar da energia-salneurriaren etenik gabeko hazkuntza eta ingurunearekiko dituen eraginaren gizaritaren sentiberatzea (Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzetako erabilerrari loturiko energia-kontsumoak 3,6 milioi tona CO<sub>2</sub> isurtzen ditu [Energiaren Euskal Erakundea *et al.*, 2006]). Hori dela-eta, eta 2012an Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak argitaratutakoaren arabera, Gipuzkoako etxebizitzetako erdiak (% 50,9) elektrotresna bat erosten, kontuan hartu dute etiketa energetikoa, eta % 15,7k dio baduela argindarra aurrezteko gailuren bat etxebizitzetako, adibidez, argiaren intentsitate-kontrola edota presentzia-detektatzaileak.
- 2008an Eustatek buruturiko Ingurumena – Familia Inkestaren arabera, 16 eta urte gehiago dituen gipuzkoar biztanleen hiru laurdenak (% 74,8) dio ingurumenak asko kezkatzen dituela, eta % 76,8k nabarmentzen du ezaguera duela ura eta energia aurrezki eta birziklatzeko sentiberatze-kanpainak

inguruan. Oro har, gipuzkoar biztanleen portzentaje zabal bat ingurugiroaren aldeko neurri zehatz batzuek hartzearen aldeko azaltzen da, adibidez, etxebizitzetako uraren gehiegizko kontsumoa murriztea (% 69,6), ingurugiro-zerga bat ezartzea erregai kutsatzaileenentzat (% 67,3) edo energia berriztagarrien parkeak ezartzea (% 67,1). Aitzitik, soilik % 21,8k azaltzen du energia berriztagarriak erabiltzeko gehiago ordaintzearen aldeko iritzia.

- Eustaten Familia Gastuaren Estatistikaren arabera, 1.145 eurokoa izan da Gipuzkoako etxebizitzako batzuek besteko ura, argindarra, gasa eta beste erregai batzuetan eginiko 2012ko gastua. 2006. urtetik, % 49,2 hazi da gastu hori, aitzitik, ez da aldatu ondasun eta azken kontsumoko zerbitzuetan gipuzkoar familiek eginiko batzuek besteko gastu orokorra, eta, adibidez, jaitsi egin da bai batzuek besteko gastua jateko produktuetan (% -3,4) bai janzteko produktuetan (% -24,8). Horietaz gain, nabarmen beheratu dira etxebizitzako mantenu eta konponketen inguruko gastu arruntak (% -47,5), eta baita ere berokuntza-sistamarako gailu edota sukalde, hozkailu, garbigailu eta bestelako elektrotresna handien erosketak (Eustat, 2012b [behin-behineko datuak]).
- Gipuzkoako etxebizitzetan batzuek besteko argindarra eta gasaren urteko kontsumoa, hurrenez hurren, 3.370 kWh eta 6.100 kWh-koa izan zen (Energiaren Euskal Erakundea, 2013). Argindarrari dagokionez, Arabakoa baino pixka bat altuagoa da Gipuzkoako batzuek besteko kontsumoa (batzuek beste, urteko 3.100 kWh), baina Bizkaikoa (3.500 kWh) eta Estatukoa baino baxuagoa (3.487 kWh) [Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía, 2011]. Gipuzkoako gas naturalaren kontsumoa ere Bizkaia (5.130 kWh) eta Arabakoaren tartean (8.020 kWh) aurkitzen da.
- Azkeneko sei urteotan nabarmentzekoa da etxebizitzetako kontsumo energetikoaren mantentzea, eta beheratzea batzuetan ere; eta bitartean, euskal etxebizitzetan kostu energetikoa hazi egin da. Gertakizun horren kausatzat jo daiteke euskal etxebizitzetan erabilitako energia-iturriek izandako garestitze nabarmena. Adibidez, % 58 hazi da 2007 eta 2011. urteen artean kilowatt-ordu elektrikoaren batzuek besteko kostua.

## 2.2. Pobrezia energetikoaren eragina Gipuzkoan

### 2.2.1. Etxebizitzako energia-gastuak kontuan hartzen dituen ikuspegi

Etxebizitzako gastu energetikoak kontuan hartzea da gaur egun pobrezia energetikoa neurtzeko gehien erabiltzen den ikuspegi bat. Ikuspegi honek oinarriko premisatzat hartzen du 'gehiiegizko' esfortzu ekonomiko bat egin beharra dagoenean etxebizitzako premia energetikoei aurre egiteko ematen dela pobrezia energetikoa, eta funtsean, ebaluatzen du premia energetikoei loturiko etxebizitzako premiak asetzeko kontsumo energetikoa eta diru-sarbide garbiak. Aplikatu ahal izateko, metodologia

horrek eskatzen du gastu-atalase bat ezarri eta hartatik diskriminatu ahal izatea pobrezia energetikoa pairatzen duten familiak. Gaur egun, hauxe da Erre-suma Batuan pobrezia energetikoa modu ofizialean neurtzeko modua, eta baita ere, arazoaren helmena zehazteko beste herrialde batzuetan erabilitakoa.

#### 2.2.1.1. Zenbat gastatzen dute energia gipuzkoar etxebizitzek?

Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestaren arabera, batzuek besteko gipuzkoar etxebizitzetan gastua 750,4 eurokoa izan zen 2012an, eta gasa edota beste erregai batzuetako zifra ailegatzen da 549,8 euro izatera. Guztira, kontuan hartuz gero bi gastu horiek, gipuzkoar etxebizitzetan 1.300 euro gastatzen dira urteko, batzuek beste, 108,3 euro hileko. Gipuzkoako faktura energetikoaren batzuek besteko gastuaren inguruan lorturiko emaitzak (1.300,1 euro/urteko), EAE (1.145 euro) eta Espainiako (1.199,1 euro) datuen aldean % 13,5 eta % 8,4 altuagoak dira, hurrenez hurren. Datu horien arabera, pentsatu daiteke elkarriketatuturiko pertsonek neurriak borobiltzean kalkulia goratu izana aipaturiko zenbateroetan, eta Gipuzkoako datuek alborapen-mota bat izatea. Guztiaz ere, ezin daiteke baztertu gipuzkoar familien gastua Estatuak edo EAEk egiten duena baino altuagoa ez denik. Adibidez, Energiaren Euskal Erakundeak 2011an zehazten zuenez, Gipuzkoako familia baten batzuek besteko gastua (1.066 euro), praktikoki, EAEko batzuek besteko gastua baino % 6 altuagoa omen zen (1.008 euro urtean).


#### 2.2.1.2. Energia-gastuen garrantzia etxebizitzetako aurrekontuetan

Zein da gipuzkoar etxebizitzetako guztirako diru-sarbideekiko egiten den energia-gastuen garrantzia zehatza? (2. grafikoa). Gastu energetikoetan oinarrituriko ikuspegi hau harturik, Pobrezia eta Gizarte Bazterketa Inkestak azaltzen duenez, batzuek besteko neurrian, gipuzkoar etxebizitzetan bideratzen da guztirako diru-sarbideen % 5,3 argindar, gas naturala edo bestelako erregairen baten erreziboak ordaintzeko. Horretaz gain, emaitza horietan ere nabarmen zuten da aurrekontuaren % 4,4 bideratzen dutela betebeharrak horiek ordaintzera diru-sarbiderik gutxienez duten etxebizitzetan erdiak.

Oro har, baieztatu daiteke gipuzkoar etxebizitzetan aurrekontuaren 'erlatiboki' txikia den zati bat (% 5 edo gutxiago) bideratzen dutela gehienek –hamarretik ia seik– ; eta, gainera, etxebizitzetan laurden batek (25,5) % 3 edo gutxiago bideratzen du ordain horietarako. Halere, datuak ere erakusgai jartzen dute etxebizitzetan ia hamarretik batean (% 9,5) diru-sarbideen % 10 edo gehiago bideratzen dutela gastu energetikoa ordaintzeko, eta horren ondorioz, 25.600 etxebizitzek diru-sarbide horietarako gehiegizkoa den energia-gastuari aurre egin behar diote. Halere, tasa hori zerbait baxuagoa izango litzateke, adibidez, 2012an Estatuak osorik hartutako % 12,4ko datuaren aldean (Tirado, 2012).



**2. grafikoa. Etxebizitzako faktura energetikoa ordaintzera bideratzen den diru-sarbideen proportzioa eta etxebizitzetako batz besteko gastua energian, etxebizitzetako diru-sarbide baliokideen arabera deziletan. Gipuzkoa, 2012**



**Iturria:** Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta (2012).

Egitan, Gipuzkoan jasotako 2012ko datuek azaltzen dute pobrezia larriak eragindako etxebizitzetan –beraz, kokatzen dira diru-sarbide baliokidearen medianaren %4oko atalasearen azpitik– pobrezia energetikoa pairatzen duela %57,5ak. Aurretik hartutako ildo beretik, pobrezia orokorraren kasuan gertatzen den bezala, horrela neurturiko pobrezia energetikoa bereziki eragiten die etxeko pertsona aktiboetatik batek ere lanik egiten ez duenean (diru-sarbideen %10 baino gehiago gastatzen dute etxebizitza horietatik %26,4k), gurasobakarren etxebizitzei (%23,4), gizarte-bazterketa egoeran daudenei (%22) eta kide nagusi emakume bat duten etxebizitzei (%20,2).

Nabarmendu behar da, edonola ere, ekuazio hori ez dela perfektua, hau da, pobrezia monetarioa bizi duten etxebizitza horiek guztiek ez dute betiere maila jasoagoan izaten pobrezia energetikoaren eragin larriago bat.

**2.2.2. Etxebizitzetako hautemate eta adierazpenetan oinarrituriko ikuspegia**

Etxebizitzetan bizi diren pertsonen hautemate eta adierazpenak hartzen ditu ikuspegi honek etxebizitzetako pobrezia energetikoa neurtzeko, eta horren bidez nahi da ondorio batzuek edo deigarrien diren ezaugarrien ezaguera izatea, adibidez, etxebizitza neguan bero ezin mantendu edota gasa edo argindarraren fakturak ordaintzeko atzerapenak gertatzen direnean ekonomia-zailtasunengatik (1. taula).

**1. taula. Etxebizitzetako hautemate eta adierazpenen ikuspegiaren arabera, pobrezia energetikoaren eragina etxebizitza eta biztanleen artean. Gipuzkoa, 2012**

	Etxebizitzak		Pertsonak	
	Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
[a] Tenperatura egoki bat mantentzeko ezintasuna	7,4	19.819	6,1	43.489
[b] Energia-erreziboak ordaintzeko atzerapenak	4,1	10.899	4,5	31.909
[c] Hezetasun-egoerak	9,2	24.642	9,1	64.638
3 item egotea	0,5	1.236	0,4	2.652
Gutxienez 2 item egotea	3,0	8.023	3,5	24.248
Gutxienez item 1 egotea	17,2	46.101	16,0	113.136
Item horiek egotea [a] edo [b]	9,5	25.416	8,4	59.619
3 item horietatik bat ere ez egotea	82,8	222.134	84,0	594.140
Pobrezia energetikoaren adierazle sintetikoa	14,0	–	13,0	–

**Iturria:** Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta (2012).

Ikuspegi honen baitako pobrezia energetikoaren eragina ebaluatzeko neurri nagusia sortzen da aldagai desberdinak kontuan hartzen dituen adierazle sintetiko baten osararik. Gehienez, hiru hauek dira kontuan hartutako aldagaiak: hilabete hotzetan etxebizitza tenperatu egoki batean mantentzeko ezintasuna; atzerapenen bat izatea ura, gasa, berokuntza-sistema edo argindarraren erreziboak ordaintzean; eta etxebizitzan itoginak edo hezetasun-arazoak izatea.

Gaur egun, erlatiboki orokortutako kontsentsua lortu da pobrezia energetikoa neurtzeko aurretik aipaturiko aldagai horien inguruan (etxebizitza neguan bero ezin mantendu, faktura energetikoa ordaintzeko atzerapen eta etxebizitzetako hezetasan eta itoginak). Hori egin dute, behintzat, orain gutxi buru izandako Europar Batasunaren esparruko azterlan akademiko horiek guztiek (European Fuel Poverty and Energy Efficiency, 2009; Tirado eta Ürge-Vorsatz, 2010; Thomson, 2011; Bouzarovski, 2011; Tirado, 2012; Thomson eta Snell, 2013). Halere, azterlan batzuen eta besteen artean badira alde nabarmenak, izan ere, horiek guztiek ere analisirako hiru aldagaiak erabili arren, desberdina izaten da bakoitzarentzat horiek duten garrantzia.

### 2.2.2.1. Pobrezia energetikoaren adierazle sintetikoaren emaitzak

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestako emaitzen arabera, 2012an 20.000 etxebizitza inguruko bizikideek diote (guztietatik % 7,4) ezin dutela hilabete hotzetan etxebizitza tenperatura egoki batean mantendu, eta 11.000 etxebizitzetan (% 4,1) atzerapenak izan dituzte energia-erreziboak ordaintzerako garaian. Horretaz gain, Gipuzkoako 24.700 etxebizitza inguruan (guztietatik % 9,2) nabarmetzen omen da hezetasan edo itoginen ondorioz gertaturiko horma, lurzoru edo sabaiko kalteren bat.

Soilik, Gipuzkoako 1.000 bat etxebizitzetako bizikideek (% 0,5) azaltzen dute aldi berean aipaturiko hiru egoera horiek bizi izan dituztela, halere, aztergai harturiko hiru item horietako bat etxebizitzaren % 17,2an jasotzen da, hau da, gutxi gorabehera pobrezia energetikoa neurtzean burutzen diren azterlanetan erabilitako faktore horietako batek eragindako 46.100 etxebizitza.

Hiru adierazle horiek oinarri harturik, Gipuzkoako adierazle konposatuak 14ko balioa jasotzen du etxebizitzetan eta 13koa pertsonetan (2. taula). Ohartu beharrekoa da adierazle sintetiko horren emaitzak

ezin direla portzentajeetan bildu, eta, horren ondorioz, ez dutela berez azaltzen tasa edo prebalentzia bat (hau da, ezin da baieztatu Gipuzkoako biztanleen % 13k pobrezia energetikoa pairatzen duenik), eta ahalmen konparatibo bat du gaitasun nagusi.

### 2.2.2.2. Egoera termiko optimo batean etxebizitza mantentzeko gaitasuna

Jasotako emaitzen arabera, etxebizitza gehienetan ere modu honetako arazorik ez dute izaten (% 92,6), orokorrean egoera horien eragina oraindik ere mugatua den arren (etxebizitzetako % 7,4 eta pertsona guztien % 6,1), bereziki altua izaten da etxebizitzakasu zehatz batzuentzat.

Aldagai sozial, demografiko eta ekonomiko batzuen funtzioan eginiko arazo horren eraginaren inguruko azterketa batek azaltzen duenez, oso hertsia da neguan etxebizitza berotu ahal izateko finantza-ezintasunaren eta ekonomia-pobrezia eta gizarte-bazterketaren arteko harremana. Izan ere, arazo hori pairatzen dute pobrezia larria edo gizarte-bazterketa pairatzen duten hamarretik hiru pertsonak. Edonola ere nabarmendu daiteke, alderantzizko bidetik, pobrezia larria bizi dutenen etxebizitzaren % 70ak ez duela horrelako egoerarik bizi, eta pobre ez direla pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetatik bi heren edo gehiago. Hori dela-eta, errepikatu beharrekoa da etxebizitza pobreetan maizago gertatu arren, ez dela soilik pertsona pobre edo baztertuen arazoa.

Horretaz gain, lotura nabarmena antzematen da etxebizitza berotzearen ondorio diren gastuei ezin aurre egiterik duten kasuen eta etxebizitzako bizikideen lan-merkatuan duten partaidetza-mailaren artean. Hori dela-eta baieztatu daiteke bizikide aktibo guztiak ere langabezian daudenean 5,6 biderrean hazten dela arriskua pertsona landunak dituzten etxebizitzetako kasuen aldean. Etxebizitzako kide nagusiaren herritartasun eta sexuak ere harreman estua dute pobrezia energetikoaren adierazle honekin. Ikus daitekeenez, nabarmen da altuagoa arazo

2. taula. Pobrezia energetikoaren adierazle batzuen konbinazioaren emaitzak. Gipuzkoa, 2012

	Etxebizitzak		Pertsonak	
	Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
[a] Gastu energetikoa >10% guztirako diru-sarbideak	9,5	25.599	7,0	49.177
[b] Tenperatura egoki mantentzeko ezintasuna	7,4	19.819	6,1	43.489
[c] Energia-erreziboak ordaintzean atzerapenak	4,1	10.899	4,5	31.909
Adierazle bakarraren presentzia	12,5	33.651	9,9	69.939
Bi adierazleren presentzia	3,6	9.785	3,4	23.780
Hiru adierazleen presentzia	0,4	1.032	0,3	2.359
Soilik gehiegizko gastua [a]	7,1	19.052	5,2	36.459
Soilik hautemate subjektiboa [b] edo [c]	7,0	18.869	6,6	46.901
Ikuspegiaren presentzia [a] eta [b]/[c]	2,4	6.547	1,8	12.718
Gutxienez adierazle baten presentzia [a] edo [b] edo [c]	16,6	44.468	13,6	96.078
3 adierazleatariko bat ez izatea	83,4	223.767	86,4	611.198

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta (2012).

3. taula. Etxebizitzako ezaugarri batzuen arabera, hilabete hotzetan etxebizitza tenperatura egoki batean mantendu ezin duten etxebizitza eta pertsonen proportzioa eta kopurua. Gipuzkoa, 2012

		Etxebizitzak		Pertsonak	
		Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
Bizikideen kopurua	pertsona 1	11,9	6.34	11,9	6.34
	2 pertsona	8,2	6.737	8,1	13.049
	3 pertsona	6,3	3.531	5,8	9.589
	3 pertsona baino gehiago	4,2	3.21	4,4	14.51
Azalera-erabilgarria	70 m <sup>2</sup> baino gutxiago	10,3	6.865	10,7	16.135
	70 eta 89 m <sup>2</sup> artean	7,3	7.571	5,6	14.923
	90 m <sup>2</sup> edo gehiago	5,5	5.383	4,3	12.431
Eraikuntza-data	1979. urte aurrekoak	9,7	15.319	8,6	34.125
	1979. urte ondorengoak	4,1	4.5	3	9.364
Edukitze-erregimena	Jabetza	4,9	11.084	4,9	11.084
	Alokairuan	21,7	8.735	6,8	32.406
Etxebizitza-mota	Banako etxebizitzak	8,1	1.812	4,5	3.214
	Pisu eta apartamentuak	7,3	18.007	6,3	40.275
Berokuntza-sistema egotea	Badu	5,2	12.649	4,4	28.283
	Ez du	26,6	7.17	24,6	15.206
Gas naturalaren instalazioa	Badu	5	9.392	3,5	17.78
	Ez du	13,1	10.427	13	25.709
Eremua	Ekialdea	8,8	13.729	7,2	28.592
	Mendebaldea	5,4	6.09	4,8	14.897
Guztira	–	7,4	19.819	6,1	43.489

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta (2012).

horren eragina kide nagusia EB kanpoan jaiotako etxebizitzetan (% 25) Euskal Herrian (% 5,4) edo EBko beste herrialdeetan jaiotako aldea (% 9). Bertan alde nabarmena antzematen da aurretik aztertutako gastuaren adierazletik, izan ere, ez baitzuen horrenbesteko alderik EB kanpo jaiotako eta Gipuzkoa osoko etxebizitzaren erregistro guztiekin alderatuz gero.

Bestetik, baita ere nabarmentzen da emakume bat kide nagusi izaten den kasuetan bikoiztu egiten dela gizonezko bat kide nagusi den etxebizitzaren aldea, eta modu nabarmen batean hazten dela arazoa pairatzeko arriskua pertsona bakarreko etxebizitzetan (% 11,9), eta bereziki gurasobakarren artean (% 18,5). Azkenik, ez da antzematen garrantzizko lotura bat etxebizitza berotzeko kostuari aurre egin eta etxebizitzako kide nagusia den pertsonaren adinaren artean. Lotura hori ere ez da adierazgarria 65 eta urte gehiago dituzten pertsona adindu edota ezgaitasun edo gaixotasun larriak dituzten pertsonak kontuan hartzean.

Pobrezia energetikoaren alderik gardenetakoa da hotzik gehien egiten duen hilabeteetan etxebizitza bero mantentzeko zailtasuna, eta erlazio estua du horrek etxebizitza eta ekipamenduen ezaugarri batzuekin. 3. taulan jasotzen dira arazo horrekin erlazionatzen diren aldagaiak, eta gehienez izaten da etxebizitzan berokuntza-sistema bat instalatua izatea (banakakoa edo zentrala) eta etxebizitza edukitze-maila. Horrela, baieztatuta daiteke berokuntza-sistema instalatu gabeko etxebizitzak (% 26,6) eta alokairu-

erregimenean dituzten maizterrak direla (% 21,7) arazo horren eragina gehien nabarmentzen dutenak.

Bestetik, eta datuen arabera, arazo horrek harreman estua omen du etxebizitzako okupazio-maila eta azalera-erabilgarriarekin. Emaitzen arabera, arazo hori pairatzeko arriskua hazi egiten omen da bizikide-kopurua eta azalera erabilgarri dituen metro koadroak gutxitzen diren heinean. Beste hitzez esanda, arrisku gehien dute etxebizitzako egokitasun termiko estandar bat mantentzeko kasuak egokitzen dira, hain zuzen ere, pertsona bakarra bizikide den kasu (% 11,9) eta tamaina txikiena duten etxebizitzekin (% 10,3). Nahiz eta azkeneko datu horrek teoria-mailako baieztapen bat gezurtatu, hau da, azalera gehiago izatean hazi egiten direla berotzeko premiak eta pobrezia energetikoa pairatzeko arriskua, erraza da hori azaltzea. Gipuzkoan behintzat, Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko azterlanaren arabera, orokorrean, baliabide urriko pertsonak bizi dira etxebizitza txikiagoetan, eta horiek 1979. urtea baino lehenago eraiki zituzten besteak baino proportzio askoz ere altuago batean.

Etxebizitzan gas naturalaren instalazioa izatea eta eraikuntza-data dira etxebizitza batzuetako arazoaren eragin handiagoa azaltzeko kontuan hartu beharreko beste bi osagai. Datuen arabera, berokuntza-sistemaren instalaziorik ez dutenen artean, ezin du etxebizitza bero mantendu batz bestekoa ia bikoizten duen proportzio batek (% 13), eta eragin handiagoa izaten dute 1979. urtea baino lehenago eraikitako etxebizitzetan (% 9,7).

Azkenik, nabarmendu daiteke Gipuzkoako ekialdeko eremuan bizi dela arazo horrek eragindako biztanlerik gehien (% 8,8), eta eremu horrek hartuko litzuzke Bidasoa, Oarsoaldea, Donostia eta Buruntzaldeako eskualdeak. Mendebaldeko eremuak dira (% 5,4) Debagoiena eta Deba Behea, Goierri, Tolosaldea eta Urola Kosta.

**2.2.2.3. Faktura energetikoa ordaintzean gertatzen diren atzerapenak**

Bertako emaitzen arabera, kide nagusi emakume bat denean eragina pixka bat gehiago nabarmentzen da kide nagusia gizonezko bat denean baino (% 4,5 emakumezkoak eta % 3,9 gizonezkoak kide nagusi dituzten etxebizitzak), eta baita ere horren maiztasuna hazi egiten dela etxebizitzako kide nagusiaren adinak behera egiten duen heinean. Alegia, 45 urte edo gehiago kide nagusiak dituzten etxebizitzetan (% 7,9) izaten du eraginik gehien fakturen ordaintze ezak, eta arazo horren eragina minimoa izaten da kide nagusi 65 urte edo gehiagoko pertsona bat denean (% 1,2). Baita ere, arazo horren eragin sakona nabarmentzen da gurasobakarreko familietan, izan ere, etxebizitza guztietatik soilik % 8,7 izan arren<sup>4</sup>, gas- eta argindar-fakturen ez ordaintzeak aipatzen dituzte horietatik guztietatik % 11,7k. Aurrekoaren hari beretik, emaitzek azaltzen dute arazo honen maiztasun handiago bat bizikide batzuek adingabeko diren kasuetan. Bestalde, ez da nabarmentzen estatistikoki nabarmentzekoa den erlazio bat ezgaitasun edo gaixotasun larria duten pertsona eta gas- edo argindar-fakturak berandu ordaintzearen gaiaren artean.

Prebalentzia- edo maiztasun-tasak aztertu ordez, arazoa pairatzen dutenen profil orokor bat aztertzerakoan, nabarmentzen da ordaintzean atzerapenak izan dituzten etxebizitzaren % 84ean ez dela pairatzen pobrezia-egoera larriarik, eta % 36,9 etxebizitzetako kide nagusia Europar Batasunetik kanpoko herritartasuna duen pertsona bat dela –etxebizitza guztietatik ia % 6,1 dira–, eta etxebizitza horietako kide nagusi dira 45 urte edo gutxiago dituzten pertsonak.

Bestalde, emaitza horiek aztertzen badira etxebizitzako zenbait ezaugarrien arabera –aurreko epigrafean bezala–, antzeman daitezke nabarmentzeko joera batzuek. Alderik handienak ematen dira edukitza-erregimenean. Frogatu daiteke arazo horren eragina askoz ere altuagoa dela alokairuan dauden etxebizitzetan (% 17,6), jabego-erregimenean etxebizitza duten pertsonen aldean (% 1,7).

<sup>4</sup> Ohartu beharreko gaia da etxebizitza horien arteko ezaugarri sozial eta demografikoen artean dauden desberdintasunak. Horieta-tik guztietatik % 26,8k 45 urtetik azpiko pertsona bat du etxebizitzako kide nagusi, % 41,5 dira 45 eta 64 urte bitarteko etxebizitzetako buru eta gainontzeko % 31,7ak du kide nagusi 65 urte edo gehiago dituen pertsona bat. Etxebizitza horien kasuen gehiengoan izaten dute kide nagusi emakume bat (% 87), baina kasu horietatik, soilik % 34,1 izaten dira 18 urte azpiko pertsonak bizikide dituzten etxebizitzak.

Gainera, nabarmentzen da erlatiboki argia den erlazio bat energia-erreziboen ez ordaintze eta gabezia materialeko egoeren artean. Berokuntza-sistema edo gas naturala instalaziorik ez duten etxebizitzetan bikoiztu egiten da praktikoki arazo hori gertatzeko arriskua.

Bestalde, eta neguan etxebizitza bero mantentzeko etxebizitzetako zailtasunak ematen diren kasuen antzera, etxebizitza zaharkitu eta azalera gutxi-ekoengan eragin handiagoa izaten du erreziboak ordaintzean izandako atzerapenek. Halere, kontrakoa gertatzen da etxebizitzetako bizikide-kopurua aztertzean. Kasu hauetan nabarmendu daitezke bereziki hiru edo pertsona gehiago bizitzen diren etxebizitzetan adierazten da gehien erreziboen ordaintzetak ez dituztela garaiz egin.

Azkenik, ez da nabarmentzen estatistika-erlazio garrantzitsurik etxebizitza kokatzen den lurralde-eremua eta faktura energetikoa ordaintzean izandako atzerapenetan.

**4. taula. Etxebizitzetako pobrezia energetikoa neurtzeko bikiuspegiaren arteko doikuntza\*. Gipuzkoa, 2012 (%)**

	Aurrekontuaren % 10 baino gehiago bideratzen dute energia-gastuan	Ezin dute etxebizitza bero mantendu edota energia-fakturretan atzerapenak izan dituzte	Etxebizitzak guztira
Aurrekontuaren % 10 baino gehiago bideratzen dute energia-gastuan	100,0	25,8	9,5
Ezin dute etxebizitza bero mantendu edota energia-fakturretan atzerapenak izan dituzte	25,6	100,0	9,5

\* Goitik behera irakurri behar da taula. Bertan dauden balioek jasotzen dute zutabearen goiburuan adierazten den taldearen adierazlearen prebalentzia.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta (2012).

**2.3. Pobrezia energetikoa gehien eragiten dieten etxebizitzaren ezaugarriak**

- Sexua. Kide nagusi<sup>5</sup> emakume bat duten etxebizitzetako pobrezia energetikoa (% 29,5) askoz ere altuagoak dira kide nagusia gizonezko bat dutenen aldean (% 11,1). Praktikan, pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzaren artetik, emakume bat izaten du kide nagusi % 52,7k, baina % 29,6 da Gipuzkoako emakumeen pisu espezifikoak. Halere, pobrezia energetikoa er-

<sup>5</sup> Etxebizitza-buru edo kide nagusia den pertsonaren definizioa jasotzen du Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak, eta horren arabera, ikuspegi ekonomiko edo etxebizitzaren izateagatik bizikideek nagusizat hartzen duten pertsona da kide nagusia.

ginaren baturan, ez da nabarmentzen gizonezko (% 12,2) eta emakumezkoen (% 14,9) arteko estatistika-desberdintasun handirik. Horrela gertatzen da etxebizitza hartzen delako analisiaren unitate gisara. Hori dela-eta, emaitzen arabera antzeko banaketa bat gertatzen gizon eta emakumeen artean, ez dute bata eta bestearen artean emaitzen alde nabarmenik erakusten.

- Adina. Besteek baino pobrezia energetiko arrisku handiagoa izaten dute 65 edo urte gehiagoko kide nagusiak dituzten etxebizitzetan. Horietan, % 21,7koa da arazo horren eragina; 45 urte edo gutxiago dituzten kide nagusietako etxebizitzetan % 14,5; eta 45 eta 64 urteen arteko kide nagusiko etxebizitzetan % 13,8. Pobrezia energetikoa pairatzen duten hamarretik lau kasuetan baino gehiagotan 64 urtetik gorako pertsona bat dute buru. Orokorrean, ez dira estatistikoki nabarmentzeko aldeak aurkitzen pobrezia energetikoa pairatzen duten adingabeko diren pertsonetan (% 15), 18 eta 64 urte artekoetan (% 12,3) eta 64 urte baino gehiago dituztenen artean (% 16,4). Halere, azpimarratzekoa da arazo horren maiztasun handiago bat pertsona adinduren bat bizikide duten etxebizitzetan (% 20,2). Atal honetan eskainitako datuen analisiek azaltzen dute, gehienbat, gehiegizko energia-gastua egiten dutela pertsona adinduek izaten dituzten diru-sarbideekin konparatuz gero. Aitzitik, beste gipuzkoar etxebizitzetan baino eragin baxuagoa dute faktura-ordainketen atzerapen eta bero mantentzearen inguruko gabeziak etxebizitza horietan.
- Jaioterra. Pobrezia energetikoa pairatzen dute kide nagusia EB kanpoan jaio den hamarretik ia lau kasuetan. Nahiz eta etxebizitza horien pisu demografikoa % 61ekoa izan arren, pobrezia energetikoa pairatzen du etxebizitza horietatik % 14,6k. Alde horiek ere nabarmentzen dira etxebizitzaren ordez, pertsonen ezaugarriak kontuan hartzen direnean. Bertako pertsonen aldean (% 12,8), EB kanpoko jaioterra duten lautik batek pairatzen du pobrezia energetikoa. 65 urte eta gehiagoko kide nagusiak dituzten etxebizitzetan ez bezala, askoz ere garrantzitsuagoak dira pobrezia energetikoaren adierazle konposaturantzako aldagai subjektibo horiek energia-gastua eta etxebizitza aintzat hartzen duen aldagai objektiboaren aldean.
- Familia-mota. Etxebizitzetako familien osarari kontu hartzean, nabarmentzen da eragin gehien duten etxebizitzak bat datozela pertsona bakarreko (% 29,3) eta, bereziki, gurasobakarreko etxebizitzekin (% 39,6). Demografikoki, soilik biztanleriaren % 15,7 osatzen duten etxebizitza horietan bizi dira pobrezia energetikoak eragindakoen % 39,6. Familia horietan ematen den eragin handiago hori azaltzeko, nabarmena da familia gurasobakarrek duten pobrezia-egoera larriaren tasa eta beste etxebizitzaren aldean pertsona bakarrek osaturiko etxebizitzek egin beharreko esfortzu energetiko handiagoa.
- Lan-merkatuko partaidetza. Etxebizitza bateko pertsona aktiboen lan-merkatuko partaidetza eta

pobrezia energetikoaren arteko erlazio argia ematen da. Bizikide guztiak ere landun dituzten etxebizitzetatik, soilik % 7,1ak pairatzen du pobrezia energetikoa, baina bizikide aktibo guztiak lanik ez dutenean, 6,5 biderretan hazten da arazo horren eragina (% 46,5). Biztanleriaren ezaugarrien arabera, langabezia daudenek pairatzen dute maiz arazo hori (% 31,1). Gutxi gorabehera, Gipuzkoan pobrezia energetikoa pairatzen duen hamar pertsonatik bi dira langabetu.

- Pobrezia monetarioa. Aztertutako modu guztietatik, pobrezia-egoera larriek izaten dute erlaziorik gehien pobrezia energetikoa gertatzen den kasuetan (kontuan hartuz diru-sarbide baliokidearen medianaren % 40ko atalasea). Datuen arabera, pobrezia-egoera larriak pairatzen dituzten hamar etxebizitzetatik zortzik pairatzen dute pobrezia energetikoa. Gipuzkoar biztanlerian gutxi batzuek pairatzen dute pobrezia-egoera larriaren bat (% 4,3), halere, pobrezia energetikoaren eragina nabarmentzean % 26,2ko pisu espezifiko du talde horrek.
- Gizarte bazterketa. Pobrezia energetikoaren eragin modu berezi batean nabarmentzen da gizarte-bazterketa egoerak pairatzen dituzten etxebizitzak. Kasu horietan, ia lau biderretan hazten da pobrezia energetikoaren eragina (% 46,3) gizarteratutako egoera batean dauden etxebizitzaren aldean (% 12). Pertsona pobreen modu berean, pobrezia energetikoa eta gizarte-bazterketa pairatzen duten etxebizitzaren erlazioa datuek gehiegizko maila batean azaltzen direla azaltzen dute, izan ere, berauen biztanle guztiekiko portzentajea % 12,4koa da, baina arazo hori bizi dute gizarte-bazterketa pairatzen duen % 42k.

### 3. Ondorioak

#### 3.1. Zenbait egoeren ondorioz, gure lurralde eta ingurunea hartzen dute pobrezia energetikoaren hazkuntzarako joera duen testuinguru gisara

Gaur egungo egoera batzuen baturak pobrezia energetikoaren oinarritzko hiru kausei eragiten diete, eta horiek oinarri harturik, pentsatu daiteke etorkizuneko arazo hori gure lurraldean larriago daitekeela:

- Krisialdi ekonomikoaren ondorioz gertatu da langabezia eta pobrezia hazkuntza bat, eta baita ere diru-sarbideen mailako gutxitze orokor bat. Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestaren arabera, ongizate ezean edo diru-sarbiderik Gabe bizi zen 2012an gipuzkoar herritarren artean % 16,8, gutxi gorabehera, eragindako 120.000 pertsona. Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunaren Inkestako eboluzio-datuen arabera, krisialdia hastetik aurrerarik gabeko hazkuntza gertatu da ohiko betebeharrak eta gastuei aurre egin ezin dieten etxe-kopuruan, eta 1996. urtetik jasotako mailarik altuenean kokatzen da pobrezia erreala, eta gipuzkoar herritarren % 3,8k pairatzen du.

- Etxebizitzetako efizientzia energetikoaren hobekuntzan aurrerabidea egin arren, oraindik ere asko hobetu daiteke. Joandako urteotan, administrazioek ekimen ugari bideratu dituzte etxebizitzetako energia-kontsumoa gutxitu eta efizientzia energetikoa hobetzeko. Gaur egun, Energiaren Euskal Erakundearen kalkulua batzuen arabera, batz bestea, berokuntza-sistemaren kontsumoa %40 gutxitzea ahalbidetu daiteke 2007. urte aurreko etxebizitzak erreformatuz, hau da, Gipuzkoako etxebizitza gehienak.
- Energia-prezioen gorakada haztarazten ari da familien gastua. Etxebizitza gipuzkoarretan kontsumo energetikoak ingurumenean duen eraginaz kezka azaldu eta erabiltzen dituzte energia aurrezteko baliabide batzuek –horrek erlatiboki antzeko mantentzerazi du joandako urteotako etxebizitzetako kontsumoa–, faktura energetikoaren gorakadak ez du etenik izan, 1.145 eurotako da 2012ko urteko batz bestekoa, eta 2006tik %49 hazi da. Gorakada horren oinarritzko arrazoiak izan da joandako urteotako energia-prezioen gorakada garrantzitsua, eta 2008 eta 2012 urteen artean, batz besteko kontsumitzailearentzat argindarra %46,1 eta gasa %32,2an hazi da. Gaur egun, Espainia lekutzen da azken prezio altuenak dituen herrialdeen arteko sailkapenean. Prezioaren gorakada hori gertatzeko kausa garrantzitsuenetakoa dira –2013an ere gora egiten ari da– argindar-tarifaren defizita, ia erabateko kanpoko energia-mendetasuna (2011n %94,2 EAEn) eta merkatu handizkarian gertatzen den eskaintzaren kontzentrazio-maila altua.

### 3.2. Pobrezia energetikoa neurtzeko dauden ikuspegiak aplikazioaren ondorio gisara ulertu daiteke pobrezia energetikoa ez dela isolatutako arazo bat: 'gehiagizko' gastu energetikoa azaltzen dute etxebizitzetatik %9,5ean, eta %7,4k adierazten duenaren arabera, ezin dute etxebizitza bero mantendu hilabete hotzetan

- Gehien aintzatetsi diren ondorengo bi ikuspegiatan oinarritu da gure lurraldean pobrezia energetikoak duen eraginaz ezaguera izateko azterlan hau: etxebizitzako energia-gastua kontuan hartzen duen ikuspegia eta etxebizitzako bizikideen hautemate eta adierazpenetan oinarritzen den ikuspegia.
- Etxebizitzako energia-gastuan oinarritzen den ikuspegiak premisa gisa hartzen du pobrezia energetikoa pairatzen dela etxebizitza batean, 'gehiagizko' esfortzu ekonomikoa egin beharra dagoenean premia energetikoei aurre egiteko. Beraz, ikuspegi horrek oinarri hartzen du kontsumo energetikoaren premiei loturiko gastua eta etxebizitzetako diru-sarbidetza garbierako

erlazioa. Adierazle hori kalkulatzeko, erabiltzen da eskuragarri diren diru-sarbidetza %10eko atalase bat.

- Etxebizitzako bizikideen hautemateetan oinarritutako ikuspegiak pobrezia energetikoa neurtzen du etxebizitzaren arabera jasotako adierazpenetatik landutako adierazle batzuen arabera, eta islatu nahi ditu arazo honen ondorio edo alderdi deigarrienak. Neguan etxebizitza bero mantentzeko ezintasuna, faktura energetikoa ordaintzean gertaturiko atzerapenak eta hezetasun, itogin eta beste kalte batzuek izatea dira hiru adierazle erabilienak.

### 3.3. Pobrezia energetikoa Gipuzkoan: modu desberdinean etxebizitzaren %16,6ari eragiten dion errealitatea

- Bi ikuspegiak bateratuta kontuan hartuz gero, baieztatu daiteke 2012an gipuzkoar etxebizitzetatik %16,6k –96.000 pertsona inguruk– pairatzen duela pobrezia energetikoari loturiko egoeraren bat. Ikuspegi metodologikotik, etxebizitza batean pobrezia energetikoa pairatzen da ondorengo hiru hauek baldintza bat betetzean: diru-sarbidetza bat ez datorren gehiegizko energia-gastua (%10 baino gehiago); etxebizitza hilabete hotzetan tenperatura egoki batean mantentzeko ezintasuna adieraztea; edo, ekonomia-zailtasunen ondorioz, argindar eta gasari loturiko erreziiboak ordaintzean izandako atzerapenak.
- Nabarmenezkoa da askoz ere hein handiago batean eragiten diela arazo horrek, Gipuzkoako etxebizitza guztien aldean, emakume bat, 65 urte edo gehiagoko pertsona bat edo Europar Batasunetik kanpo jaiotako pertsona bat buru duten etxebizitzetara, pertsona bakarreko edo guraso bakarreko etxebizitzetara, gehienbat, pobrezia-egoerak pairatzen dituztenei. Guztiaz ere, baztergarria da gabezia larri edo gizarte-bazterkerari erlazionaturiko etxebizitza-profilik ezin osatu daitekeenik: pobrezia energetikoa pairatzen duen etxebizitzaren %80k ez du bizi pobrezia-maila larriarik (eta %42,5ak ezta pobrezia erlatiborik ere), %63 gizartearen integraturik dauden herritarren etxebizitzak dira eta kasuen %22an landunak dira etxebizitzako kide aktibo guztiak.
- Etxebizitzaren ezaugarriak dagokionez, antzematen da pobrezia energetikoaren eragina hazi egiten dela etxebizitzako bizikideen kopurua behar den heinean, eta etxebizitza txikietan, azalera-erabilgarriari dagokionez, pobrezia energetikoaren eragina gehiago nabarmen dela, bestelako etxebizitza zabalagoen aldean. Baita ere, antzematen da eragin nabarmen bat 1979. urtearen aurreko eraikuntza eta etxebizitza alokairu-erregimena duten egoeretan.

## Bibliografia

- ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA (2011): *Etxebizitzaren Beharra eta Eskariari buruzko Inkesta*.
- BOARDMAN, B. (1991): *Fuel Poverty: From Cold Homes to Affordable Warmth*, Londres, Belhaven Press.
- BOUZAROVSKI, S. (2011): *Energy Poverty in the EU: A Review of the Evidence*, University of Birmingham; School of Geography, Earth and Environmental Sciences.
- CLINCH, J. P.; eta HEALY, J. D. (1999): "Housing standards and excess winter mortality in Ireland", *Environmental Studies Research Series Working Papers*, 99/02 zb.
- COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO (2011): "Dictamen del Comité Económico y Social Europeo sobre el tema 'La pobreza energética en el contexto de la liberalización y de la crisis económica' (Dictamen exploratorio)", *Diario Oficial de la Unión Europea*, 2011/C 44/09.
- ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (2013): *Euskadiko etxeko sektoreko energia-erabilerari buruzko azterlana*.
- (2007): *La energía en el hogar*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Gobierno Vasco.
- et. al. (2006): *Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eraikuntza iraunkorrerako*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Gobierno Vasco.
- EUROPEAN FUEL POVERTY AND ENERGY EFFICIENCY (2009): *Evaluación de la pobreza energética en Bélgica, España, Francia, Italia y Reino Unido*, European Fuel Poverty and Energy Efficiency.
- EUROSTAT (2012): *Energy Statistics* [<http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/energy/introduction>].
- (2011): *European Union Statistics on Income and Living Conditions*.
- EUSTAT (2012a): *Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta*.
- (2012b): *Familia-kontsumoko Gastuaren Bilakaera* [behin-behineko datuak].
- (2011a): *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua*.
- (2011b): *Kontu Ekonomikoak*.
- (2008): *Ingurumena-Familiak Inkesta*.
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA (2012): *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta*.
- HEALY, J. D.; eta CLINCH P. (2002): "Fuel poverty in Europe: A cross-country analysis using a new composite measure", *Environmental Studies Research Series Working Papers*, 02/04 zb.
- HILLS, J. (2003): *Getting the Measure of Fuel Poverty. Final Report of the Fuel Poverty Review*, saila: CASE Reports, 72. zb., Londres, London School of Economic; Centre for Analysis of Social Exclusion.
- INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA (2012): *Encuesta de Condiciones de Vida*.
- INSTITUTO PARA LA DIVERSIFICACIÓN Y AHORRO DE LA ENERGÍA (2011): *Proyecto SECH-SPAHOUSEC. Análisis del consumo energético del sector residencial en España. Informe final*.
- SIIS DOKUMENTAZIO ETA IKERKETA ZENTROA (2013): *Pobrezia energetikoa Gipuzkoan / La pobreza energética en Gipuzkoa*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia [<http://www.sis.net/es/ver-detalle.php?ref=212278>].

- THOMSON, H.; eta C. SNELL, C. (2013): "Quantifying the prevalence of fuel poverty across the European Union". *Energy Policy*, 52 zb., 563-572 or.
- THOMSON, H. R. (2011): *Qualifying and Quantifying Fuel Poverty across the European Union Using Consensual Indicators*, University of York; Department of Social Policy and Social Work.
- TIRADO, S. (zuz.) (2012): *Pobreza energética en España. Potencial de generación de empleo derivado*

*de la rehabilitación energética de viviendas*, Madrid, Asociación de Ciencias Ambientales.

- TIRADO, S.; eta ÜRGE-VORSATZ, D. (2010): *Fuel Poverty in Hungary. A First Assessment*, Budapest, Center for Climate Change and Sustainable Energy Policy.

- WWF/ADENA (2012): *Retos y oportunidades de financiación para la rehabilitación energética de viviendas en España*, Madrid, WWF/Adena.